

Itxaropen amerikarra

Paul Thomas Anderson gaztea zinemagile estatu batuarren belaunaldi berriko sortzailerik iradokitzaileena da. Berlingo Zinemaldiko Urrezko Hartza irabazi berri du, *Magnolia* ederrarekin. Aste honetatik aurrera izango da ikusgai filma Euskal Herrian.

Uñaki lazcano

Zinema estatu batuarra aldatzen ari da. Zinemagile gaztez osatutako belaunaldi berri batek dakar iraultza. Amesgaizto amerikarraren oinordekoak dira. David Fincherren *Fight Club* ilunean, Todd Solondz independentearen *Happinnes* gordinan, Wachowski anaien *Matrix* ezkorran edo Sam Mendes britainiarren *American Beauty* mingotsean zinema berritzaile horren hastapenak suma daitezke. *Being John Malkovich* komedia irudimentsuak zinema estatu batuarren promesa berria bihurtu du Spike Jonze; *Magnolia* gazi-gozaok, aldiz, benetako zinemagile bilakatu du Paul Thomas Anderson. Zinema amerikarren itxaropena loratu egin da.

1970eko urteberri egunean jaio zen Paul Thomas Anderson, Kaliforniako Studio City hirian. Ernie Anderson komedianten ezagunaren semea berehala egin zen zinemaren maitale. Gazte nerabe bat besterik ez zela, *The Dirk Diggler Story* film laburra sortu zuen. 1993. urtean, berriz, lagun batek utzi zion kamera erabiliz, *Cigarettes and Coffee* film laburra errodatu zuen. Sundanceko Zinemaldiak, *Cigarettes and Coffee* saritzeaz gain, film luze bat egiteko aukera es-

kaini zion Paul Thomas Anderson gaztetxoari.

Hiru urte geroago, *Sydney* estreinako filma zuzendu zuen. Zinema beltza, maitasuna eta mendekua sotilta-

sunez nahasi zituen *thriller* erakargarri hartan Paul Thomas Anderson. *Sydney* txukunak Estatu Batuetako kritika liluratu zuen eta Paul Thomas Anderson etorkizunik handieneko zi-

nema zuzendari estatu batuar izendatua izan zen.

Bizitzaren argi eta itzalez urratutako zeluloidea

Duela hiru urte, berriz, mundu guztia zur eta lur utzi zuen, *Boogie Nights* komedia beltz bikainarekin. Industria pornografikoak 70eko hamarkadan izan zuen arrakastaren uharari jarraituz, porno izar bihurtu zen gazte baten istorioa kontatzen zuen filmak; pornoaren krisia zela medio drogaz eta sexuz betetako egun alaiak amaitzen joan zitzaizkion heinean hondoratu zen gaztearen drama, alegia.


Morbotik ihesi, duintasun handiz islatu zituen pornoa ogibide zuten gizaki apurto haien zoriona eta zorigaitza Paul Thomas Anderson gazteak. Zinema pornoaren munduaren ikuskera gordin, zein hunkibera hark hiru

Fitxa Teknikoa

Filma: *Magnolia*.
Jatorrizko izenburua: *Magnolia*.
Estatu Batuar, 1999.
Zuzendaria eta gidogilea:
Paul Thomas Anderson.
Aktoreak: Jason Robards, Julianne Moore, Tom Cruise, Philip Seymour Hoffman, John C. Reilly, Melora Walters, William H. Macy, Philip Baker Hall.
Argazkia: Robert Elswit.
Musika: John Brion, Aimee Mann.
Estreina: 2000-III-1 (Ipar Euskal Herrian)
2000-III-3 (Hego Euskal Herrian)
Iraupena: 188 minutu.

izendapen jaso zituen Oscar sarietan. Paul Thomas Andersonen gidoi paregabeak eta Burt Reynolds beterranoaren nahiz Julianne Moore erakargarriaren interpretazio onak, baina, ez zuten merezitako sariak erdietsi.

Max Ophuls, John Cassavettes, Dardenne anaiak eta Robert Altman dira Paul Thomas Anderson gazteak gehien atsegin dituen zinemagileak. *Magnolia* ederrean, urrutira joan gabe, Robert Altman axeri zaharraren *Short Cuts* maisulan mikatzaren taupen oihartzuna senti daiteke. Altmanen zinema baino areago, ordea, bizitza izan duela inspirazio iturri nagusi aitortzen du: «Filmean erretratatzeko ditudan anabasa eta nahasmena bizitza beraren isla dira».



Magnolia: bizitzaren petalo saminak

Earl Partridge (Jason Robards) hilzorian dago. Aberatsa zelako ezkondu zen harekin Linda emaztea (Julianne Moore). Baina, orain, senarra heriotzaren atarian duela, harekin maiteminduta dagoela ohartu da. Frank Mackey (Tom Cruise) telepredikatzailerik misogino bat da. Neskak seduzitzeko aholku kerratuak eskaintzen ditu, kutxa leloaren bitartez. Phil erizainak (Philip Seymour Hoffman) Frank telepredikatzailerik Earl gaixoarenekin semea dela jakin du, eta aita-semeak adiskidetzen saiatuko da beranduegi izan baino lehen. Claudia (Melora Walters) kokainazalea da.

Haren patuak kale itsua dirudi. Jim polizia jatorra (John C. Reilly) Claudia-rekin maiteminduko da, eta itxaropenean sinestea zilegi dela erakutsiko dio. Jimmy Gator (Philip Baker Hall), berriz, telebista saio arrakastatsu bateko aurkezle famatua da. Minbizia du eta badaki ez dela bizirik irtingo. Jimmy Gatorrek dohain aparteko haurren lehiaketa bat gidatzen du. Stanley



(Jeremy Blackman) umerik burutsuena da, baina aitaren maitasuna falta zaio. Ikusleen artean Donnie Smith dago (William H. Macy). Sasoi batean dohain aparteko haurra izan zen arren, etxetresnen salmentan egiten du lan orain. Bakardadea du lagun bakarra, eta taberna gay bateko zerbitzaria maite badu ere, ez da bere sentimenduak adieraztera ausartzen. Pertsonaia horien guztien sentimenduak zein itxaropenak apurka-apurka gurutzatuz eta nahasiz joanen dira, filmak aurrera egin ahala. Hala, maitasunik ezak, bakardadeak, gorrotoak eta heriotzak bortizki egingo dute talka maitasunarekin, desioekin eta ametsekin.

Bizitza pieza zuri eta beltzez osatutako puzzle bat besterik ez baita, Paul Thomas Andersonen *Magnolia* ederrean udazkeneko hostoak balira bezala erortzen uzten ditu bizitzaren petalo saminak.